

Gure Zirkua, munduko zirkurik onena euskaraz

“TENEMOS QUE FRENAR EN
LA CALLE LOS RECORTES
QUE VIENEN” >04 PÁG

GAZTEAK: DENON AHOTAN,
INOREN ASMOTAN >12. ORR

“EL PROBLEMA DE OCCIDENTE
CON CHINA ES QUE ES UN
PROYECTO SOBERANO” >42 PÁG



Glasgow, COP26: hitz asko, ekintza gutxi

Nazio Batuen klima aldaketaren gailurra, COP26 izenekoa, Glasgow-en (Eskozia) bildu da azaroan. Beste urte batez ere porrota izan da: 26 gailur, 42 urte... Eta duela 30 urte hartu beharreko neurriak proposatu dituzte berriro. Orain hartu beharreko neurriak 30 urte barru hartuko badituzte, ez da egongo zer salbatu. Hitz asko eta ekintza gutxi.

Irailean IPCCk (klima aldaketa aztertzen duen nazioarteko taldea) jakinarazi zuen "berotegi efektuko gasen emisioetan murrizketa handiak egiten ez badira atzera bueltarik gabeko egoera batean murgilduko garela". Egoera katastrofikoa ekiditeko beharrezkoa da planetaren beroketak 1,5°C ez gainditzea, baina COP26ko akordioa muga horretatik oso urrun geratu zen. Onartu ziren neurriekin planeta 2,4°C berotuko da.

Larrialdi klimatikoaren egoera onartu zen, baina ez dago akordio loteslerik: herrialde bakoitzaren borondatearen arabera beteko da (edo ez) sinatutako apurra.

Energia fosilei dirulaguntzak murriztea eta ikatzaren erabilera mugatzea zegoen hasierako testuan, baina India eta beste ikatz ekoizle eta kontsumitzaile batzuen presioak azken orduko aldaketa eragin du. "Erabiltzen uztea" eskatzetik "pixkanaka murriztera" pasa da.

Bestetik, klima aldaketa modu gogorrean jasaten duten herrialdeek betidanik eskatu dute kalteak ordaintzeko funts bat sortzea, baina hori ere ez da sortu. Dena den, klima aldaketara egokitzeko finantzazioa ere mahai gainean egon da COP guztietan. 2009an onartu zen 100.000 milioi dolarretako Klimarentzat Fondo Berdea delakoa ere ez da oraindik lortu eta 2025era atzeratzea erabaki da. Kontuan izan behar da finantzazio guzti hau herrialde garatuenei ipini beharreko dirua dela, garapen bidean daudenek klima aldaketari aurre egin eta garapen "garbiago" bat izan dezaten. Puntu hau oso garrantzitsua da justizia klimatikoa egon dadin, eta oraingoan ere ez da beteko.

Beste behin ere, argi geratu zaigu noren interesak defendatzen diren horrelako gailurretan. Ez dituzte entzun ere egiten klima aldaketa gehien sufritzen duten herrialdeen eskariak, eta hauen ordeztu, emisio gehien dituzten eta aldatzeko behar gehien duten herrialdeen interesak defendatzen dira, hauen atzean dauden energia fosilen *lobby*-ak ahaztu gabe.

COP hau antzerki hutsa izan da, politikari batzuen -Eusko Jaurlaritza barne- propaganda hutsa. 

Os recordamos que Landeia se ha reconvertido en una revista bimestral dirigida a la acción sindical que, en principio, está concebida para ser enviada a los delegados y delegadas. Si no lo eres y quieres seguir recibéndola en papel, solicítala en: ELA, Komunikazio bulegoa. Barrainkua 13, Bilbao o Landeia@ela.eus. Por otra parte, en nuestra web: www.ela.eus podrás descargar la versión digital de ambas publicaciones, tanto ALDA como Landeia.

¡A la calle frente al enésimo chantaje en pensiones y reforma laboral!

La movilización es la única vía efectiva para condicionar las reformas que se avecinan, sin descartar la huelga general.

IVÁN GIMÉNEZ

Miles de personas llenaron el pasado 1 de diciembre las calles de Euskal Herria en 41 movilizaciones distintas en las que se implicaron 58 organizaciones sociales, además de los 8 sindicatos convocantes (ELA, LAB, Steilas, ESK, Etxalde, Hiru, CNT y CGT).

Miles, 41, 58, 8... Son cifras muy importantes, pero no bastan por sí solas para reflejar la gravedad de las reformas (laboral y de pensiones) que este mes de diciembre se están dirimiendo en el Congreso de los Diputados. Serán cientos de miles las personas afectadas en Euskal Herria (y varios millones en el resto del Estado) por unos recortes que ya se han producido en cuanto a las pensiones y que todavía se están negociando en lo que concierne a la legislación laboral (la enésima reforma del Estatuto de los Trabajadores).

Estas movilizaciones ocuparon las calles de Euskal Herria para condicionar la posición de los partidos políticos vascos que deben votar estas reformas en Madrid, porque los escaños de estas formaciones (PNV, Bildu, Unidas Podemos, Geroa Bai...) son imprescindibles para el Gobierno de Pedro Sánchez.

Desgraciadamente, las competencias en pensiones y en legislación laboral continúan lejos de Euskal Herria, pero en el camino hacia el Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social, la posición de los partidos vascos ante estas leyes es un factor clave: si los escaños abertzales en Madrid no son capaces de hacer valer sus votos ahora en unos cuantos aspectos legales... ¿cómo va a iniciarse algún día el proceso real hacia la soberanía social y económica de Euskal Herria?

En definitiva, la situación es urgente y los plazos se van agotando. ELA ya salió a la calle en solitario el pasado 24 de octubre y, junto a otras organizaciones sindicales y sociales, el 13 de noviembre (manifestaciones convocadas por el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria).

En el reciente 15º Congreso de ELA, el sindicato aprobó una resolución sobre estas cuestiones, que era lo suficientemente clara en todos los sentidos: "No nos vendáis en Madrid. No vamos a aceptar, de ninguna manera, que se pongan otros intereses por delante de la mejora de las condiciones de vida de





cientos de miles de trabajadores y trabajadoras o pensionistas de Euskal Herria". Para entonces, ya llovía sobre mojado: el 22 de noviembre, PNV y EH Bildu habían dado la espalda a los intereses de la mayoría, al facilitar la aprobación en la comisión del Congreso de los Diputados de la reforma de pensiones, que días después (2 de diciembre) fue votada en el pleno.

La reforma de las pensiones en detalle

Esa reforma, ya aprobada, no revierte los recortes aprobados en la década anterior, certifica el pacto entre el Gobierno de Pedro Sánchez, CEOE y CCOO y UGT, e incorpora el MEI acordado por esos sindicatos y el ministro Escrivá. En concreto:

- » Plantea nuevas medidas regresivas, como el recorte de las jubilaciones anticipadas.
- » Sustituye el Factor de Sostenibilidad por el Mecanismo de Equidad Intergeneracional (MEI), que recoge una voluntad y compromisos claros para proponer nuevos recortes futuros.
- » No garantiza realmente el poder adquisitivo de las pensiones. Prueba de ello es que, de aprobarse el proyecto de presupuestos del

Pensiones erreformari bidea ixtea eta azken lan erreformak bertan behera uzteko mezuarekin, Euskal Herriko kaleak berriro bete dira. Azken egunak dira, Europar Batasunak, Espainiako Gobernuak eta patronalaren xantaiari aurre egiteko. Horren aurrean, euskal gehiengo sindikala eta dozenaka eragile sozialen mobilizazioak ikusten ari gara. Nor baino nor.

Estado para 2022, las pensiones perderán, al menos, 3 puntos de poder adquisitivo. Este punto merece una explicación especial, por la enorme propaganda a cargo del Gobierno español: Sánchez ha querido vender que se iba a recuperar la revalorización automática de las pensiones en función del IPC, pero eso no es cierto. En el acuerdo con CCOO, UGT y CEOE, en lugar de utilizar el IPC interanual de noviembre a noviembre, han acordado una fórmula distinta. Según esa fórmula, utilizada ya en el proyecto de presupuestos generales del Estado, aunque el IPC interanual se sitúe en el 5,6%, la subida de las pensiones en 2022 va a ser de tan solo el 2,5%, lo que supone una pérdida de 3 puntos de poder adquisitivo.

» No mejora las pensiones mínimas, obviando la reivindicación de una pensión mínima de 1.080 euros.

» Se trata de la primera parte de una reforma de pensiones cuya segunda fase tiene fecha (junio de 2022) y también presenta medidas de recorte, como el aumento del número de años cotizados que se tienen en cuenta para calcular la pensión. Tanto la fecha como las medidas están ya acordadas con Bruselas, como moneda de cambio para percibir los siguientes tramos de los Fondos Europeos.

La reforma laboral, ¿con las campanadas?

Por su parte, la reforma laboral está secuestrada en la Mesa de Diálogo Social. El Gobierno insiste en que para antes de final de año se va a aprobar dicha reforma, a través de un Real Decreto Ley, y los plazos son tan ajustados que incluso se baraja la opción de que dicho texto se apruebe el 31 de diciembre, para su posterior convalidación





parlamentaria a lo largo del mes de enero.

Ya ha quedado claro que el Gobierno del PSOE y Unidas Podemos ha renunciado a derogar las reformas laborales de 2010, 2011 y 2012, y no plantea cambio alguno en cuestiones tan importantes como haber facilitado y abaratado el despido. Son muchos los casos, como EITB (Euskadi Irratia) Gamesa-Agotiz, ITP, Tubacex, Arcelor-Zumarraga, Aernnova, H&M, Zara, Banco Sabadell, Kelvion, M. Torres o Cirmauto, entre otros, donde se han comprobado las graves consecuencias de las reformas laborales. Solo mediante la movilización se han logrado revertir los ataques empresariales, en muchos casos frente a compañías que han acumulado beneficios millonarios previamente.

Merece una mención especial el derecho a negociar los convenios colectivos en Euskal Herria, derecho vulnerado actualmente por una reforma, avalada por el PNV en 2011, que permite que a nivel estatal

Mobilizazioa da erreforma horiek baldintzatzeko bide eraginkor bakarra, greba orokorra baztertu gabe, hala badagokio. Abendua funtsezkoa da. Etorkizuna hemen dago. Gaur jokatu da.

se niegue el derecho a negociar convenios en nuestro ámbito territorial.

Por ello, sería inaceptable que una reforma laboral mantuviese ese orden de prioridad de los convenios. Si finalmente hay reforma laboral con los votos de PNV, Bildu y Unidas Podemos, se debe garantizar el derecho a negociar y mejorar las condiciones de trabajo en el ámbito territorial respecto al estatal. Se trata de una cuestión democrática, y un elemento nuclear de la soberanía y el autogobierno.

En resumen, las reivindicaciones concretas de las miles de personas que el pasado 1 de diciembre salieron a la calle coinciden en gran medida con la

resolución aprobada en el reciente Congreso de ELA:

» Rechazo al proyecto de Ley de pensiones.

» Derogación de las reformas de pensiones de 2011 y 2013.

» Garantía para que las pensiones suban en 2022 el IPC interanual de noviembre de 2021.

» Establecimiento de una pensión mínima de 1.080 euros.

» Derogación las reformas laborales de 2010, 2011 y 2012.

» Y que los partidos vascos voten en contra de la convalidación del futuro Decreto-Ley en materia laboral si no se garantiza el derecho a decidir en Euskal Herria las condiciones de trabajo y si no se da marcha atrás en las medidas para facilitar y abaratar el despido.

En cualquier caso, la movilización es la única vía efectiva para condicionar esas reformas, sin descartar, llegado el caso, la huelga general. El mes de diciembre es clave. El futuro está aquí. Se juega hoy. **A**



Lan erreforma: Demokrazia eta errespetua behar dugu

Sektoreko eta enpresako hitzarmenen gainetik Estatuko hitzarmenei lehentasuna ematea ez da demokratikoa, ezta zilegia ere.

Lan erreforma adosteko azken egunotan omen gaude, Europar Batasunak inposaturiko epeak errespetatuko badira, behintzat. ELAren idazkari nagusia Mitxel Lakuntzak () askotan azpimarratu duen bezala, "Ministerioek adostutako testuak azpimarratzen du Gobernuak elkarrizketa sozialaren bidez alderdi guztiekin akordio justu eta orekatua" lortu nahi duela. Lakuntzaren arabera, patronalari ematen zaion boterearen eta beto gaitasunaren adierazgarri da hori: "Ez da serioa, ezta sinesgarria ere, esatea lan erreforma indargabetu daitekeela patronalarekin akordioa lortuta. Bistakoa da patronalak ahal duen guztia egingo duela lan erreforma hori ez indargabetzeko, ez baitio borondatez uko egingo alde duen egungo legeria bidegabe eta desorekatuari".

Dena den, gogoratu behar da azken lan erreformak derogatzeko egindako bidea oso luzea izan dela, eta aliantzek berebiziko garrantzia izan dutela. Adibidez, pasa den ekainean, ELAk, CIGak (Galiziako sindikatua) eta Kataluniako Intersindicala Madrilen elkartu ziren Lan Ministerioaren aurrean. Bertan egindako interbentzioan, Lakuntzak azpimarratu zuen "lan erreforma indargabetzea ezinbestekoa dela. Horren baitan, bereziki indargabetu behar da EEKak errazten dituen kaleratze kolektiboak eta Euskal Herrian sektoreko hitzarmenen lehentasuna berreskuratu behar da. ELAk horiek lortzeko lanean jarraituko du, eta Madrilen diputatuak dituzten Euskal Herriko alderdiei (EAJ, Bildu, Podemos) eskatuko die aldarri horiek defendatzeko konpromisoa har

dezatela".

Orduan, ELAk, CIGak eta Intersindicalak elkarrizketa soziala bide okerra zela berretsi zuten. Haren izaera antidemokratikoa salatu zuten, eta ohartarazi zuten helburua langileen etxeratzea eta desmobilizazioa zela. Gainera, ohartarazi zuten adostasun horrek beto- eskubidea ematen diola patronalari lan- erreformak indargabetzeko orduan, eta horrek elkarrizketa soziala esparru antzu eta kaltegarri bihurtzen duela langilariarentzat. Lakuntzaren arabera, "Elkarrizketa Soziala deituriko gaitza beharrezko aldaketak ez egiteko aitzakia baino ez da. Benetako galga da, eta patronalak beto- eskubidea du. Argi dago lan-baldintzak eta pentsioak hobetzeko neurriak ez direla mahai hauetatik etorriko". Hori dela eta, "patronalaren betoa ez onartzea ezinbesteko baldintza da aurrera egiteko".

Horrekin batera, lan-harremanen, pentsioen eta babes sozialaren eredua nork bere nazioan erabakitze eskubidea aldarrikatu zuten sindikatu eta buruek, soldata eta lan- baldintzak hobetzeko. Hori dela eta, Euskal Herriko, Galiziako eta Kataluniako gehiengo sindikalak errespetatu gabe Madrildik baldintza oso eskasak ezartzen dituen negoziazio kolektiboaren egungo estatalizazio eredua arbuiatu zuten.

Eredu horrek, salatu zuten, langilariaren prekarizazio eta pobretze handiagoa eragin du, Estatuko hitzarmenei lehentasuna emanez probintziakoei baino, eta sektoreko eta enpresako hitzarmenak hondatuz. "Demokrazia





Nicola Scherer, investigadora del Observatori del Deute en la Globalització, @NicolaKSch

Reforma laboral, fondos europeos NextGenerationEU y la deuda que nos espera

Ahalegin
handiagoa egin
behar genuen
pandemiaren
osteko
susperraldia
eta eraldaketa
ekonomikoa
finantzatzeko,
epe
laburrerako
eta epe
luzerako Next
Generation
EU funts
europarrek
adina baldintza
eta arrisku ez
dituzten beste
mekanismo
batzuen bidez.

El debate actual entre el PSOE y Unidas Podemos sobre la reforma laboral no solo nos muestra las diferentes posiciones entre las vicepresidentas Nadia Calviño y Yolanda Díaz y la dificultad de encontrar un acuerdo entre actores sociales, sindicatos y patronales sino que manifiesta otro hecho: hay que contentar a la Comisión Europea (CE). Más bien, la CE es uno de los actores más importantes en el debate actual. Sin su aprobación, el Gobierno de Pedro Sánchez no recibirá ni un euro más de los fondos europeos NextGenerationEU (NGEU). Ya en junio de 2021, Ursula von der Leyen, presidenta de la CE, anunció que la llegada de las ayudas NGEU estaban condicionadas al avance del Gobierno en las reformas laborales, de pensiones y fiscales y al cumplimiento de las recomendaciones fijadas en el semestre europeo.

Es decir, los fondos no son gratis, vienen con condiciones. En junio de 2021, la CE aprobó el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia 'España puede' donde el Gobierno de Sánchez pidió 69.500 millones de euros en subvenciones para invertir en la recuperación económica post-pandemia y en la modernización del tejido económico español en supuestas claves verdes y digitales. En este plan dibujó, además, 102 reformas, de las cuales algunas son muy importantes para las personas trabajadoras y el tejido social: concretamente, las reformas de las pensiones, fiscal y laboral. Las pautas generales están ya diseñadas y entregadas a Bruselas.

Por ejemplo, en el caso de la reforma laboral, podemos ver en el componente 23 del plan 'España puede', que el Gobierno ya decidió que no iba a emplear la palabra "derogación de la reforma laboral de 2012 del PP", sino que optó por el concepto de la "corrección de los desequilibrios estructurales" para conseguir la aprobación de Bruselas. Cuatro semanas después el Estado español la primera transferencia de 9.000 millones de euros a cargo del los fondos NGEU. Así, en pleno debate sobre la reforma laboral, la CE advierte al Gobierno de que "la reforma laboral y la de pensiones deben cumplir lo pactado", como dijo el comisario europeo de Economía Paolo Gentiloni en octubre 2021 durante su visita en la Moncloa y que "la CE tiene claros los objetivos de la reforma laboral: pide que se reduzca la temporalidad, que mejore la negociación colectiva y, sobre todo, reclama que estos cambios no rebajen la flexibilidad que introdujo la reforma de 2012."

CONDICIONANTES PREOCUPANTES

Pero si nos preocupan las condiciones que hay que cumplir para recibir los fondos NGEU, nos deberían preocupar aún más las condiciones para devolver el dinero a Bruselas. Sí, hay que devolverlo, porque la Unión Europea financia el instrumento NGEU a partir de la emisión de bonos "NGEU". Estos bonos son deuda mutualizada, donde los riesgos serán compartidos entre los Estados miembros. Es decir, en los próximos 5 a 30 años, cuando vencen los bonos, la Unión Europea, mejor dicho las personas contribuyentes, deberán devolver el dinero a los mercados financieros.

Por lo tanto, la UE deberá haber recaudado ese dinero de los Estados miembros. La vía de recaudación más probable, según lo que pasó tras el crash global de 2008, es a través de la priorización del pago de la deuda y el recorte de los gastos públicos en servicios esenciales para la sociedad (como salud y educación). De hecho, en agosto de 2021, la ministra de Hacienda, M^a Jesús Montero, argumentó que cuando se activen las reglas fiscales - suspendidas por la pandemia hasta el próximo año - "habrá que presentar ante Bruselas y también ante el Congreso un plan creíble que permita certificar que el Gobierno está en una hoja de ruta de bajada del déficit y el endeudamiento". Visto lo visto, es más que probable que no se cargue la financiación de la recuperación económica sobre las empresas y grandes fortunas a través de una reforma fiscal progresista, sino que nos impongan una nueva ola de medidas de recortes y austeridad.

Al pensar en posibles escenarios futuros, es imprescindible tener en cuenta la deuda que generan los fondos NGEU y pensar cuáles serán los impactos para las futuras generaciones y personas trabajadoras. La CE anunció que

emitirá bonos por valor de 800.000 millones de euros hasta 2026 para financiar la recuperación económica. Recientemente, anunció que emitirá 250.000 millones de euros en bonos verdes para financiar los fondos NGEU. Realmente, lo que sabemos a fecha de hoy es que hay 6 bonos NextGenerationEU – en corto bonos "NGEU" – ya emitidos en el mercado financiero, con un valor nominal de 66 mil millones de euros.

LOS FONDOS DE INVERSIONES, TENEDORES DE LOS BONOS

De momento no hay datos disponibles sobre los tenedores de estos bonos NGEU, que se pueden consultar de manera pública. La CE publicó en la subasta inicial para los primeros 5 bonos únicamente los datos de los compradores por sectores y región geográfica. Según estos datos, el 76,60% de los bonos NGEU fue comprado por inversores privados como fondos de inversiones, bancos comerciales, aseguradoras, fondos de pensiones y "hedge funds" y el 23,4% fue comprado por bancos centrales. El grupo mayoritario de compradores fueron los fondos de inversiones (36,80%) y, en general, la mayoría de los inversores provinieron del Reino Unido (27,60%) y Alemania (14,80%).

La opacidad y falta de transparencia del mercado financiero dificulta la lectura sobre los acreedores de la deuda comunitaria. La pregunta de a quién tenemos que devolver lo prestado en 2026, 2028, 2031, 2037, 2041, 2051 -cuando vencen estos bonos que actualmente se intercambian en el mercado financiero-, en este momento solo se puede adivinar. Si se mantiene el % del día de la compra, podemos prever que 19.872 de los 66.000 millones de euros (emitidos actualmente) tendremos que devolverlos a los fondos de inversiones, como pueden ser HSBC (Reino Unido) o Allianz Group

(Alemania). Si se vende la deuda a los poderosos fondos estadounidenses, vamos a deber a BlackRock, Vanguard o Fidelity Investment.

MOTIVOS DE PREOCUPACIÓN

¿Por qué nos debería preocupar? Primero, porque es una cuestión de justicia intergeneracional: es la futura generación la que tendrá que devolver en los próximos décadas lo prestado a estos acreedores. ¿Les hemos preguntado si las políticas actuales de recuperación económica -y también las reformas relacionados con ello- son en su interés? Diría que no.

Segundo, en el contexto actual de sobreendeudamiento, caída del PIB, recesión económica y futuros costes relacionados con la emergencia climática, es bastante improbable que podamos generar a través de nuestra economía productiva la riqueza para devolver todo lo prestado a los mercados financieros en su tiempo acordado. Dado el gran poder que ejercen los inversores privados, como BlackRock, en nuestro sistema político-económico actual, no es muy probable que las instituciones europeas se enfrentaran a ellos, pidiendo, por ejemplo, una reestructuración o cancelación de la deuda. La UE refinanciará su deuda comunitaria, es decir, nos endeudaremos más para devolver la deuda antigua, convirtiéndola, así, en una deuda perpetua.

Si ahora recordamos las palabras de Ursula von der Leyen, que presentó en julio de 2020 los fondos europeos NGEU como "instrumento temporal", con razón nos entran dudas sobre la coherencia de estas palabras. Igual deberíamos haber puesto más esfuerzo en financiar la recuperación post-pandemia y transformación económica a través de otros mecanismos que no tengan tantas condiciones a corto y riesgos a largo plazo.

Esperamos que el Gobierno tenga esto en cuenta cuando comience con sus próximos deberes: la reforma fiscal. **A**



William Gaviria Ocampo, economista e investigador social

En Colombia, el pueblo no se rinde, ¡carajo!

Eztaba daezina
da gizarte-
mobilizazioak
bere fruituak
ematen
dituela eta
proposatzen
diren herri-
helburuetako
batzuk lortzen
dituela; hala
ere, Kolonbiako
gizarte
eragileak
alertak daude
kaleak berrir
hartzeko,
beren
eskakizunei
erantzuten ez
bazaie.

En los últimos 30 años, el Gobierno y la élite de poder político colombiano han impuesto una serie de reformas que han obligado a millones de ciudadanos a vivir en condiciones indignas de pobreza y exclusión.

Es así cómo el sistema de salud, por ejemplo, se privatizó con la Ley 100 de 1993. A través de dicha ley, el Gobierno entregó a los mega-empresarios del sistema financiero colombiano y multinacional “la gallina de los huevos de oro”, para que ellos, sin mayor esfuerzo, crearan empresas de recaudo de las cotizaciones conocidas como Empresas Promotoras de Salud “EPS”; y toda la infraestructura, es decir, más de 300 clínicas y hospitales públicos fueron “feriados” o vendidos a muy bajo precio. Lo único que han hecho las EPS (propiedad de los banqueros) es recaudar los aportes de los trabajadores (el 12% del salario recibido) y hacer negocios con el dinero de la salud, que mes tras mes están obligados a pagar todos los trabajadores y empleadores. La precarización de todos los servicios de salud han sometido incluso a la muerte a cientos de miles de colombianos.

Si se revisa el sector de la educación, desde 1992 han privatizado el 78% de la educación superior, así como el 64% de la educación básica y media, al tiempo que la mayor proporción del incremento presupuestal se le ha entregado a las instituciones educativas del sector privado. La educación pública se ha deteriorado dramáticamente para los niños, niñas y adolescentes de los sectores más pobres de la población colombiana que, en una gran mayoría actualmente no tienen acceso a ella. Simultáneamente, se ha inflado la burbuja de endeudamiento por créditos educativos

Lo mismo sucedió con los otros derechos de la población, como es el derecho al trabajo en condiciones dignas, porque con la Ley 50 de 1990 se impuso la más brutal reforma de flexibilización laboral de toda la historia republicana: acabó con la estabilidad en los puestos de trabajo, permitió la temporalidad en la contratación laboral, se robó la retroactividad de las cesantías, permitió la creación de empresas de tercerización laboral, acabó el pago de dominicales y festivos, redujo el pago de horas extras o trabajo suplementario; y lo peor es que desde 1990 el Congreso de la República ha legislado a favor de los empresarios, creando seis (6) leyes con graves reformas laborales para darle todas las gabelas a los empleadores, precarizando muchísimo más cada día las condiciones laborales y salariales de los trabajadores, al punto que según datos del propio Gobierno, en 2021 el empleo informal, conocido también como autoempleo, supera el 60% y el desempleo supera el 18%, situación que le impide aspirar a un buen empleo a cualquier persona joven.

Radiografía idéntica sucedió con el sistema general de pensiones, ya que desde 1993 dejó de ser público. El gobierno de turno, con esa misma Ley 100 de 1993, entregó a los banqueros más ricos de Colombia el “negocio de las cesantías y pensiones”, para que ellos, sin ser los dueños del dinero y sin haber hecho mayores inversiones, simplemente abriendo oficinas administradoras de pensiones y cesantías, recauden los aportes que hacen trabajadores y empleadores. Además, puso una cantidad de condiciones traumáticas que hoy le impiden recibir su pensión a la gran mayoría de colombianos cuando cumplen la edad para ello, porque aumentó la edad de jubilación, aumentó las semanas de cotización, disminuyó el monto de las pensiones que reciben los colombianos y acabó con los regímenes de pensiones que los sindicatos habían logrado a través de la negociación colectiva.

La elevada deuda externa, las costosísimas consecuencias de la Pandemia de la Covid 19 y la corrupción que anualmente desangra las finanzas públicas han llevado a Colombia a una situación fiscal gravísima. El gobierno impuso en menos de 18 meses dos nefastas reformas tributarias, y desde el segundo semestre de 2020 radicó un cúmulo de proyectos de Ley para que el Congreso de la República apruebe en la presente legislatura otra reforma tributaria, una reforma al sistema de salud y una reforma al sistema general de pensiones, entre otras. Todo ello configura un inhumano ajuste estructural que deja a los colombianos sin ninguna posibilidad de bienestar.

ESTALLIDO SOCIAL

Fue por ello que el Comando Nacional de Paro, conformado por el movimiento estudiantil, organizaciones del sector de la

salud, sindicatos, centrales obreras, mujeres, indígenas, campesinos, jóvenes y otras organizaciones sociales y académicas, analizaron y socializaron las nefastas consecuencias del pretendido ajuste gubernamental, se convocó a un gran paro nacional que empezó el 28 de abril y se prolongó por más de 3 meses, en el cual participaron más de 8 millones de ciudadanos/as en todas las ciudades y pueblos del país.

Lo que empezó como un Paro de un día se convirtió en el más grande paro de la producción y los servicios que se haya realizado en Colombia desde 1977, con la característica de que fueron los jóvenes quienes lideraron las multitudinarias marchas y manifestaciones pacíficas, con expresiones musicales, culturales y lúdicas, que enriquecieron y fortalecieron el movimiento en todo el país.

Sin embargo, por orden del gobierno uribista, las manifestaciones pacíficas fueron brutalmente reprimidas por las fuerzas armadas oficiales (policías y ejército), por grupos paramilitares que se han fortalecido en el actual gobierno y por sectores mafiosos. Se militarizó ilegalmente el país y se dieron facultades extraordinarias a los comandantes de las fuerzas armadas, que salieron a disparar con armas de fuego y no convencionales en contra de los manifestantes. Así mismo, el Gobierno intentó convencer a la comunidad internacional de que solo reprimieron a los infiltrados, a los vándalos y a las disidencias de las FARC y del ELN.

Argumentos desmentidos por centenares de videos e imágenes existentes y que circulan aún en las redes sociales; y que están en poder de muchos Gobiernos del mundo y autoridades multilaterales defensoras de los Derechos

Humanos. Hoy no queda duda que el Estado ha masacrado sin compasión a la población pacífica y desarmada que protesta en las calles de Colombia. Hay reportes de más de 1.000 manifestantes desaparecidos (cuerpos de algunos de los cuales han aparecido desmembrados y descompuestos en ríos y fosas comunes del país), más de 40 asesinados por las balas de policías uniformados y de civil que han atacaron a la población indefensa en Cali, en Pereira, en Ibagué, en Medellín, en Cartago, en Yumbo, en Armenia; en Tunja y en otras muchas ciudades del país. Las fuerzas militares también detuvieron y judicializaron a más de 1.500 ciudadanos que pacíficamente se manifestaban.

VICTORIA POPULAR

El estallido social en Colombia logró que el Gobierno colombiano retirara varios de los proyectos de Ley ‘antisociales’ que tenía radicados para su aprobación en el Congreso de la República, además se vio forzado a aceptar la negociación de los pliegos de peticiones que diversos sectores sociales le presentaron desde hace más de 2 años y a declarar gratuidad de la educación para los estratos uno, dos y tres; así mismo, las centrales obreras y otras organizaciones sociales radicaron más de 17 proyectos de Ley que actualmente se discuten en el Congreso de la República (aunque, sin la presión social, corren el riesgo de ser hundidos por los legisladores gobiernistas).

Es indiscutible que la movilización social da sus frutos y logra algunos de los objetivos populares que se proponen; no obstante, el Comité Nacional de Paro, los camioneros, los estudiantes, los trabajadores y usuarios de la salud, los sin futuro, entre otros grupos poblacionales están alertas para tomarse de nuevo las calles si sus reclamos no son atendidos. 

Gazteak Prekarioak eta politika instituzionaletik baztertuak

Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz ikerketa taldeak gazteen eta politikaren arteko harremanak aztertu ditu; instituzio politikoek baztertu egiten dituztela uste dute Euskal Herriko gazteek.

Testua: GORKA QUEVEDO Ilustrazioa: IRATink

Asko hitz egiten da gazteen inguruan, baina gutxi gazteekin. Ohikoa da gazteen inguruko berriak irakurtzea, entzutea edo idaztea, baina lan gutxitan emate zaie ahotza gazteei. Horregatik, batez ere Covid-19ak sortutako pandemiaren baitan, kolektibo honen inguruko topikoak zabaldu dira. Topiko horien arabera, gaur egungo gazteak egoistak dira, soilik euren zilborrera begiratzen dute, ez dira solidarioak, oso berekoiak dira. Labur esanda, denaz paso egiten dute. Baina, zuzena al da hau?

Galdera honi erantzun asmoz, edo, gutxienez, galdera honen inguruan hausnartu asmoz, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Parte Hartuz ikerketa taldeak *Oraingo gazteak axolagabe? Gazteen eta politikaren arteko harremanak aztergai* lana argitaratu du. Ikertzaile talde honek 2018 eta 2019 urte bitartean Hego Euskal Herriko era eta ezaugarri askotako 18 eta 35 urte bitarteko gazteen iritziak, jarrerak eta bizi esperientziak jaso zituen, egungo belaunaldi gazteek politikarekin duten harremana aztertu asmoz. (Manu Robles-Arangiz Fundazioak diruz lagundu du proiektua).

Gazteak eta politika. Edo politika eta gazteak

Agian termino bakoitza definitu beharko genuke lehenik. Horretarako **Ane Larrinaga Renteria**engana (Mungia, Bizkaia, 1960) jo dugu. Larrinaga EHUKo Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea da, eta ikerketa hau koordinatu du. "Gaztedia ez da talde homogeneo bat, helduok ez garen bezala. Ez da adin tarte biologiko bat, hori baino askoz gehiago da, eratze sozial bat da. Gazteez hitz egin beharko genuke, gazte izateko modu asko daudelako, tokian tokiko baldintzen arabera, jatorriaren arabera, hezkuntzaren arabera..."

Ados. Eta zer da politika? "Tradizionalki politika esparru instituzionalarekin identifikatu da. Baina esparru honek ere ez ditu muga finkoak. Azken urteetan muga hauek aldatzen joan dira, garaia eta testuinguru sozialaren arabera. Lehen politizaturik ez zeuden gai batzuk orain badaude. Duela 40 urte indarkeria matxista ez zen kontsideratzen gai politiko bat, gaur egun, ordea, bai. Paradigma klasiko liberalean muga zehatzak jarri ohi dira politikaren eta gizartearen artean, publikoaren eta pribatuaren artean. Partaidetza politikoa arlo politiko instituzionalean burutzen zena kontsideratzen zen, adibidez hauteskundeetan parte hartzea edo alderdi





📖 🎓 👤 💩 😡

🛒 💶

🇨🇭 🏠 🏢

🌀

🌀

🌀

📢 👊 👊 👊
👊 !! 📢

© Euskadi Partido político
825 Siguiendo · 5.16
★ Tweet f
Unfollow

💬 1 🔄 12 ❤️ 24

🤯 👤
💀 !?

La juventud considera el empleo como su principal problema, porque eso condiciona su vida. La mayoría de los jóvenes sólo encuentran trabajos parciales. Ven que de vez en cuando trabajan y que de vez en cuando están en el paro. Y también hay quien sólo ha tenido la oportunidad de trabajar en negro. Estos cambios en el mundo laboral han condicionado la vida de la juventud y de las nuevas generaciones.

politiko batean afiliatuta egotea. Belaunaldi berrieekin desplazamendu bat eman da. Orain ez dago horren argi zer den politikoa eta zer ez, zer den pribatua eta zer publikoa. Feminismoak argi utzi duen bezala pribatua ere politikoa da”.

Definitu dugu zer den *gazte* izatea eta zer den *politika*. Galdera, beraz, argi dago. Ba al dute gazteek politikarekiko interesik? “Eusko Jaularitzak urtero ateratzen duen ‘Gazteriaren argazkia’ izeneko inkestan jasotzen denez, soilik gazteen %30 dago interesatuta edo oso interesatuta politikan. Gainontzekoak, ez. Ikerketan ikusi dugunez, horrelako kategoria bitarrak baina gehiago –gazte politizatuak vs gazte ez politizatuak, politikan interesatuak vs ez interesatuak–, mailakako jarrerak daude. Gazte batzuek, oso politizatuta dauden familietako kide direlako edo inguruan gune politizatuak dituztelako, politika sakonki bizi dute eta euren bizitzetan aktibismoa oinarritzakoa da. Mailaka aztertzen bazoaz, orde, badaude euren burua ez politizatutzat duten gazte asko, baina gero informazio politikoa jasotzen dutenak, berri politikoak jarraitzen dituztenak, aldzika ekintzetan parte hartzen dutenak... Noski, beste muturrean, badaude ere ez informaziorik ez eta jakin-minik ez duten gazteak. Baina, zentzu honetan, gutxi dira ezertan parte hartzen ez dutenak”.

“Inkestetan –jarraitzen du– gazte askok diote ez dutela interesik politikan, baina gero horietako askok esparru zibilean aktibo ari dira. Adibidez, elkarte edo Gobernu Kanpoko Erakunde ezberdinetan, auzoan edo Gaztetxean parte hartze aktiboa dute. Zentzu arruntetik ikusten baduzu, politikak oso esparru mugatua betetzen du, baina egiten ditugun gauza askok izaera politikoa izan dezakete, bai gizarte bezala eta bai indibidualki. Jaten duguna, birziklatzen dugun ala ez, garraio publikoaren erabilera kontzienteak edo kontsumoa mugatzeak kutsu politikoa izan dezakete, ekintza horien atzean dauden balioen arabera”.

Honaino iritsita, egin beharreko galdera begi bistakoa da. Gazteek ez dute lotzen euren burua ‘politikarekin’. Zergatik? Ane Larrinagak galdera horri erantzuten dio. “Instituzio politikoak oso desprestigiatuta daude



Ane Larrinaga Renteria.

gazteen artean. Gehienek ez dute konfiantzarik ez elite politikoetan ez instituzio politikoetan ere. Gazteek politika ustelkeriarekin identifikatzen dute, interes ekonomikoen esanetara diharduten subjektuak ikusten dituzte, uste dute ez dela euren ahotsa entzuten, ez dutela protagonismorik bizitza politikoan, ez dela eurekin kontaktatzen. Ez dute konfiantzarik instituzio politikoetan, oso desprestigiatuak daude euren ikuspuntutik”.

Gazteak abandonatuta sentitzen dira, ez dituztela aintzat hartzen

Hala ondorioztatu dute Parte Hartuz ikerketa taldeko kideek. Baina honek ez du esan nahi gazteek kezkarik ez dutenik. Kezka gehienak enpleguarekin lotuta

daude. Beno, izan gaitezen zehatzagoak: enpleguaren desegonkortasunarekin.

“Gazteek enpleguaren arazoa euren arazo nagusitzat jotzen dute, horrek euren bizitza baldintzatzen duelako. Egungo politika neoliberalak lan merkatua desarautu dutenez, ez dago araurik. Horrek liberalismo hutsera bueltatzea suposatzen du. Gazte gehienek aldikako lanak besterik ez dituzte aurkitzen, lan partzialak. Tarteka lan egingo dutela eta tarteka langabezian egongo direla ikusten dute. Eta badira ere soilik beltzean lan egiteko aukera izan dutenak. Lan munduan gertatu diren aldaketa hauek goitik behera baldintzatu dute gazteen eta belaunaldi berrien bizitza”.

“XX. mendean, Ongizate Estatua existitzen zen tokietan lanak herritar oso izatea bermatzen zuen. Gutxi gora beherako lan egonkorra aurkitzean herritar bihurtzen zinen eta *heldu* statusera heltzen zinen. Gaur ez dago sarbide hori, lanak ez du egonkortasunik suposatzen, alderantziz baizik. Lana ezegonkorra da, gazteei ez die bizi proiektu bat egitea ahalbidetzen. Gazteek euren burua urte askotan gurasoen etxean irudikatzen dute, ezin direlako emantzipatu. Lanari etxebizitzaren prezio altua eta beste faktore batzuk gehitzen badizkiozu, ikusten dute euren bizitza erabat mugatuta dagoela, beti ezegonkortasunean biziko direla, ezpata moduko bat buru gainean balute bezala. Horren aurrean instituzio politikoek, gobernuak edo elite politikoek soluziorik ematen ez dietela ikusten dute. Ez dute erantzunik aurkitzen euren arazoentzat, eta erakundeen eraginkortasun ezak ikuspegi hau areagotu egiten du. Beraz, ez da horrenbeste kontua politikarekiko urrundu direla, baizik eta politika instituzionalarekiko gaitzuste bat dagoela”.

Gaurko gazteak bihar ez dira gazte izango

Baina, nola irudikatzen dute etorkizun hori? “Orain arte aipatu ditugun faktoreen ondorioz frustrazio sentipen handia dago. Elite politikoek abandonatzen dituztenaren sentsazioa dute. Horrek, frustrazioa eragiteaz gain, sistema demokratiko liberalaren deslegitimazioa eragiten du. Ez dute sistema honen eraginkortasunean sinisten. Horren ondorioz, kezka politikoak edo sozialak dituzten gazteek beste esparru batzuetara jotzen dute. Ez diote garrantziarik ematen hauteskondeei edo alderdien arteko jokoari, denak deslegitimazioaren zaku horretan sartzen dituztelako”.

Politika instituzionaletik alendu dira gazteak. Orduan, nora desplazatzen dituzte euren kezkak? Autonomia edo soberania garatu ahal duten

Las decisiones reales, las decisiones importantes, se toman en espacios distintos a los Parlamentos. La juventud también es consciente de ello. La participación juvenil se ha desplazado de estos espacios institucionales que han perdido credibilidad a espacios más informales: movimientos sociales, asociaciones de la sociedad civil o la vida cotidiana de las personas.

guneetara. Hara jotzen dute, kontrolatzen dituzten guneetara. Hala jasotzen du ikerketak, eta hala azaltzen du Ane Larrinagak. “Gune horiek era askotarikoak izan daitezke. Eguneroko bizitzako esparruetan gauzatzen dituzte euren balioak –‘ekologista izango naiz eta birziklatu egingo dut’–, edo konpromiso zibiko edo sozialean –etorkinak, arrazakeria, feminismoa...–. Gune horietan gazteek sentitzen dute eurek kontrola daukatela. Horregatik batzuek tokiak okupatzen dituzte, edo euren komunitateak garatzen saiatzen dira, baina beraienak, sistema politiko-instituzionalen ertzetan. Badira sistema politiko-instituzionalean aritzen direnak, baina gehienak ertzetan kokatzen dira. Gazte askoren arabera euren balioak ezin dira gauzatu politika instituzionalean, eta horregatik desplazatzen dute euren partaidetza beste gune batzuetara”.

Globalizazioak ere astintzen ditu gazteak

(Hego) Euskal Herriko gazteek parte hartu dute ikerketan. Baina tokian tokiko errealitatetik harantzago mundu globalizatu batean bizi dira, eta globalizazio horrek zuzenean eragiten die. Denon bizitzetan eragin zuzena duten erabaki asko ez dira bertako Parlamentu edo erakundeetan erabakitzen, urrutikoak eta ilunak egiten zaizkigun guneetan baizik. Enpresa transnazionalen edo finantza merkatuen itzala luzea da.

“Globalizazioaren garai honetan gazteek ikusten dute instituzio demokratikoen gaineko kontrola desagertu egin dela. Defizit demokratikoa gero eta handiagoa da, erabaki asko estatuz gaindiko guneetan hartzen direlako. Gazteek uste dute ez dutela erabakitze sare horien inguruko inolako kontrolirik. Benetako erabakiak, erabaki garrantzitsuak, Parlamentuak ez diren beste gune batzuetan hartzen dira. Gazteak ere hortaz jabetzen dira. Gazteen partaidetza sinesgarritasuna galdu duten gune instituzional horietatik gune informalagoetara desplazatu egin





da: mugimendu sozialetara, gizarte zibileko elkartetara edo pertsonon eguneroko bizitzara”.

Klase soziala, generoa eta inguru soziologikoa

Zein eragin dute? Ez da gauza bera errenta altuko auzo batean jaiotzea edo langile auzo batean. Ez da gauza bera gizon edo emakume izatea. Ez da gauza bera familia politizatu baten parte izatea edo familia ez politizatu batekoa izatea. Zein eragin dute faktore horiek?

“Tradizio politikoak eragina du. Familia edo gune politizatuetatik

datozen gazteek interes handiagoa dute. Klase sozialak ere zerikusia du pertsonon politizazio mailarekin, eta gazteen artean ere. Denbora izateak edo ikasketa batzuk izateak lagundu egiten du interes politikoa izateko orduan, eta diru sarrera altuak dituzten familietako gazteek erraztasun handiagoa dute horretarako. Despolitizatutako gazteen artean askok ezagutza gutxi dute, politika mundu arrotza egiten zaie. Elite politikoez erabiltzen dituzten hitzak edo hizkerak ez dituzte ulertzen”.

Jatorri sozialak baldintzatzen du, generoak baldintzatzen

duen bezala. “Neskek zailtasun handiagoak dituzte partaidetza politikora heltzeko. Partaidetza politikoak askotan neskek lehen sozializazioan jaso ez dituzten gaitasun edo abildade batzuk eskatzen ditu, esaterako, publikoan hitz egitea, publikoan aurkeztea edo zenbait kasutan erasokorrak izatea. Gune aktibistetan bertan ere bada ezberdintasun irizpide bat. Gaur egun modelo aktibistak eredu erabat maskulinoak dira, eta hemen are eta gehiago izan dira. Orain arte existitu den politika mota bat, politikoa kontentziosoa edo deituko genukeena, oso kalekoa izan da. Hor eredu nagusiak maskulinoak izan dira”.



Entre la juventud hay un gran sentimiento de frustración. Las élites políticas tienen la sensación de que les abandonan. Esto, además de provocar frustración, provoca la deslegitimación del sistema democrático liberal. No creen en la eficacia de este sistema. Esto hace que jóvenes con inquietudes políticas o sociales recurran a otros ámbitos. No dan importancia a las elecciones o al juego entre partidos porque meten a todos en ese saco de la deslegitimación.

Gai nazionala, gazteen kezka

Gai nazionala Euskal Herriak bizi duen gatazketako bat da. Gure herriak hamarkada (edo mende) luzeetan konpondu ez den auzi politikoa bizi du. Azken hamarkadan gertatu diren aldaketek, ETaren desarmatzetik aurrera nagusiki, neurri handi





batean gatazka horren ondorio lazgarrienak eta krudelenak albo batera utzi ditu. Testuinguru berri honek aldaketarik izan al du gazteen eta politikaren arteko harremanean? Gai nazionala kezka iturri al da gazteentzat? Parte Hartuz ikerketa taldeak ere hainbat ondorio atera ditu gai honen inguruan.

“Nazioaren edo nazionalismoaren auzia ez da desagertu, tradizio batzuk daudelako eta belaunaldi batetik bestera helarazi direlako. Hau esanda, egia da gazteen lehentasun eta kezketan gaia ahuldu egin dela. Lehentasunen artean enplegua, etxebizitza edo faktore sozio ekonomikoak daude, prekaritatearekin lotutakoak. Gaur egungo gazteek, gazteetan gazteenak batez ere, oso modu bortitzean bizi dituzte politika neoliberalen ondorioak, denek partekatzen dituzte prekaritatearekin lotutako kezkak. Abertzaletzat edo hartu daitezkeen gazteen artean ere nazio identitateak nolabait ere lehentasuna galdu du bere kezken artean. Gainera gaur egun aniztasun handia dago, politika asko dibertsifikatu da. Identitateak ez dira lehen bezala bizi, horren trinkoak;

identitate asko partekatu egiten dira, identitate anitzak daude. Lehen gure egunerokotasunean horren txertatuta zegoen gatazka, besteak beste adierazpen oso bortitzak zituena, askok ez dute bizi. Etxean edo inguruan entzun izan dute, kontatu egin diete, baina ez da gauza bera kontatzea edo norberak bizitzea”.

Gazteak eta sindikatuak. Nola ikusten gaituzte? Prekaritatea, soldata baxuak, ezegonkortasuna, lan kontraturik gabeko lana. Ikerketan eta elkarrizketa honetan behin eta berriro agertzen diren gaiak dira. Hau sindikatu baten aldizkari da. Bertso saioetan bezala, puntua bota diogu Ane Larrinagari.

“Ezezagutza handia dago sindikatuen eta sindikalismoaren inguruan. Ikusi duguna zera da: sindikatuak eta sindikalismoa gehiago ezagutzen da tradizio familiar bat dagoenean, hau da, senideren bat afiliatuta dagoenean edo gatazka sindikal bat bizi izan duenean. Bestalde, ezin dugu ahaztu gazteen lan baldintzak oso prekarioak direla, eta kasu askotan posible da gazteak sindikalizatzearen beldur izatea, kalte egingo dielakoan. Azkenik, bada beste faktore bat: neoliberalismoa ez da bakarrik sistema ekonomiko bat, neoliberalismoak diskurtso bat zabaldu du, guk barneratu duguna. Eta diskurtso horrek dio zuk aukeratzeko askatasuna duzula, zu zarela zure bizitzaren erantzule eta jabe... Beraz, zuk kudeatu behar duzu zure bizitzari dagokion guztia. Erretorika neoliberal horrek gure egitura subjektiboa baldintzatu du, eta joera hau ez doa sindikalgintzaren alde, gazteek irudikatzen dutelako eurek kudeatu behar dutela euren bizitza, ez beste inork. Eta hor lana ere sartzen da”.

Juventud y política

Parte Hartuz, grupo de estudio de la Universidad del País Vasco (UPV), ha publicado recientemente un estudio para conocer la relación que tiene la juventud con la política. Para ello, durante los años 2018 y 2019 recogieron testimonios de todo tipo de jóvenes de entre 18 y 35 años de Hego Euskal Herria.

Ane Larrinaga Renteria, profesora de sociología de la UPV, ha sido la coordinadora de este trabajo. “Hemos querido dar voz a la juventud, saber sus inquietudes”. Una realidad, la de los jóvenes, muy marcada por la precariedad laboral que sufren.

“El empleo hoy es muy inestable, no permite a la juventud hacer un proyecto de vida. Los y las jóvenes actuales creen que van a vivir durante muchos años en casa de sus padres porque no pueden emanciparse.

Si a la precariedad laboral le sumas el alto precio de la vivienda y otros factores, no es extraño que consideren que su vida está absolutamente limitada, que vivirán siempre en la inestabilidad, como si tuvieran una especie de espada de damocles sobre su cabeza.

Ante ello, ven que las instituciones políticas, los gobiernos o las élites políticas no dan respuesta a sus problemas. No es tanto que se hayan distanciado de la política, sino que hay un rechazo a la política institucional”.

XV Congreso de ELA

#AktibatuLortu Zaindu

“Queremos ser nexo de unión de las personas contra la despolitización y la desconexión; hay que militar contra la desesperación, luchar y soñar”.

Argazkiak: ARITZ LOIOLA





benetan garrantzitsuak diren gauzak

lo esencial,
lo más importante

Aktibatu Lortu Zaindu

ELA

2021eko azaroak 24-25
Euzkalduna Jauregia
15. KONGRESUA

Los pasados 24 y 25 de noviembre, el XV Congreso de ELA puso las bases de lo que serán las líneas estratégicas del sindicato durante el próximo cuatrienio, y eligió al equipo encargado de liderar su ejecución. La nueva ejecutiva de ELA, encabezada por el secretario general, Mitxel Lakuntza, fue apoyada por el 90,69% de los votos. Una nueva generación entra en el sindicato y, por primera vez, habrá un Comité Ejecutivo igualitario en cuanto a género.

ELA sale de este Congreso con el compromiso de convertirse en un sindicato feminista y de construir camino hacia una futura república

vasca. La lucha diaria contra la precariedad será la primera piedra.

Reforzados

Durante la primera jornada se debatió y aprobó el informe de gestión del Comité Ejecutivo, que fue defendido por Mitxel Lakuntza, secretario general, y Amaia Muñoa, secretaria general adjunta, así como por los y las responsable de las federaciones y comarcales.

ELA tiene en la actualidad 101.000 afiliados/as y una representación del 36% en Hego Euskal Herria.

La primera jornada concluyó con un sencillo homenaje a las trabajadoras y trabajadores tantas veces invisibilizados pero que durante la pandemia se mostraron como imprescindibles.

La segunda jornada del Congreso arrancó con un acto dedicado al Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres. Posteriormente, se aprobó la ponencia, enriquecida durante el debate precongresual. También salió adelante por aclamación una resolución en la que se exige la derogación de la reforma laboral. La lucha continúa. [A](#)



Mitxel Lakuntza, idazkari nagusia

“Euskal Errepublika nahi dugu, genero ekitatea, ingurumena eta ongizatea ziurtatuko dituenena”



ALDA

Berrautatutako idazkari nagusiak ELAren zioa azpimarratu zuen “despolitizazioaren eta deskonexioaren aurkako pertsonen arteko lotura gisa; etsipenaren aurka militatu behar dugu, borrokatu eta amets egin”.

Mitxel Lakuntzak, ELAko idazkari nagusi gisa berriki hautatuak, berretsi egin zuen urte hauetan jarraitutako ildoak, sindikatuaren XV. Kongresu amaierako hitzaldian, eta datozen urteotarako zenbait jarraibide ere aletu ditu: “ELArentzat, konfrontazio hitzak ez du konnotazio negatiborik; gure hiztegi oso presente dagoen hitza da. Konfrontazioak politizatu egiten du, garenaz eta aurrean

“La defensa de la clase trabajadora está inexorablemente ligada a otras políticas públicas, al feminismo y al ecologismo”.

dugunaz kontzientzia hartzeraz garmatza”.

Ildo horretan, Lakuntzak honako hau azpimarratu zuen; “Euskal Herrian grebak ugaritzeak erakusten du ez dela beste garaiko baliabide bat. Greba oso bizirik dago: behin eta berriz azpimarratu behar dugu grebak ezinbestekoak direla hitzarmen onak lortzeko, prekariedade mugatu edo amaitzeko”.

Idea horrekin jarraituz, Lakuntzak, 1.200 pertsona baino gehiagoren aurrean (736 ordezkari eta 500 gonbidatu inguru), adierazi zuen “ELAren aukera estrategikoa sindikatua okerren dauden pertsonen esku jartzea dela; langile askorengana iristen ari gara, baina prekariedadeak aurrera jarraitzen du, eta geldiarazten badugu bakarrik egingo du atzera”.



benetan garrantzitsuak diren gauzak

lo esencial,
lo más importante

Aktibatu Lortu Zaindu

ELA

2021eko azaroak 24-25
Euzko Alderdi Sozialista
15. KONGRESUA

Illo horretan, nabarmendu zuen helburu hori lortzeko lantoki bakoitzean botere sindikala eraikitzen jarraitu behar dela. “Zer da sindikalizatzea? Oinarritik boterea eraikitzea, antolatzea, ahulenak indartsu bihurtzea. Eta horretarako hauteskundeak irabazten jarraitu behar dugu, afiliatzen, hitzarmen onak lortzeko antolatzen. Izan ere, gure kartel batek zioen bezala: hitzarmenak ez dira zerutik erortzen”.

Hain zuzen ere, hor kokatu zuen Lakuntzak sindikatuaren garrantzia: “Kapitalismoak eragiten duen indibidualismoaren aurrean, teknologia berriek eragiten duten isolamenduaren eta inposatu nahi diguten mundu birtualaren aurrean, pertsonen arteko despolitizazioaren eta deskonexioaren aurrean, sindikatuak badu zer eskaini: isolamenduaren aurka bat egitea, mundu birtual horren aurrean benetako emozioak partekatzea, etsipenaren aurka borrokatzea eta amets egitea. Horretarako daukagu sindikatua, amets horiek egia bihurtzeko. ELAn oinak lurrean ditugun ameslariak gara”.

Dena da politika

Mitxel Lakuntza ez zen gelditu lan esparruan, eta ELAk eragile sozial eta politiko gisa duen zeregina aldarrikatu zuen: “Gure kezkak eta borrokak ez dira lantokietan amaitzen. Langile klasearen defentsa beste politika publiko batzuekin lotuta dago ezinbestean, hala nola, feminismoarekin edo ekologismoarekin. Batzuetan, akusazio gisa, zera esaten digute: ‘ELA gero eta erakunde politikoagoa da, eta ez hain sindikala’. Bada, ez, ELA gero eta sindikatuagoa da, iritzi eta praxi politikoa duelako”.

Zentzu horretan, Lakuntzak adierazi zuen “bere burua ezkertiartrat duen alderdi batek ezin dituela gai gatazkatsuak

saihestu, eta alternatibak landu behar dituela; azken batean, oposizioa egin behar du. Eta boterera iristen bada, gauzak aldatu, ez utzi dauden bezala. Hori nekez ikusten da gure erakundeetan. Aurrekontuei edo fiskalitateari baino ez zaie erreparatu behar. Guk ez diogu gure autonomiari uko egingo; ezkerreko alderdiek beren zeregina betetzen ez badute, ELAk ez du ontzat emango”.

Hitzaldia bukatu aurretik, ELAko idazkari nagusiak Cadizeko metalgintza sektorean grebalariei borroka gogoratu zuen: “Besarkada solidario bat ELAren partetik. Atzerapausorik

ez, lankideek. Jo ta ke, irabazi arte!”

Eta borroka bide horretan, amaitu berri den ELAren 15. Kongresuko apusturik berritzaileenetako bat azpimarratu zuen Lakuntzak: “Urrats bat egin dugu Kongresu honetan. Errepublikak batean bizi nahi dugula esan dugu. Estatu propioa, emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko duena, herri honen erabateko autogobernua, Euskal Errepublika, ingurumena zainduko duena eta gizartearen gehiengoaren ongizatea bermatuko duena, politika sozialisten bitartez”. **A**

“Hemos dado un paso en este congreso. Hemos dicho que queremos vivir en una república. Un Estado propio que garantice la igualdad de mujeres y hombres, un autogobierno pleno de este país, una República vasca que preserve el medio ambiente y que garantice el bienestar de la mayoría de la sociedad a través de políticas socialistas”.



Incremento de los importes de la Caja de Resistencia

La Caja de Resistencia es una herramienta imprescindible para que las y los trabajadores en huelga puedan desarrollar conflictos laborales que les permitan mejorar sus condiciones laborales y de vida.

Debido a la actualización del Salario Mínimo Interprofesional, referencia para calcular el importe a percibir por las y los trabajadores en huelga, ELA ha actualizado las cantidades de la Caja. Las nuevas cantidades son:

- * Caja de Resistencia ordinaria: 1.182,12 euros/mes.
- * Caja de Resistencia reforzada: 1.359,44 euros/mes.
- * Caja de Resistencia extraordinaria: 2.365 euros/mes.

Gipuzkoako garbitzaileak Bilbora joan ziren Guggenheimeneko greban dauden langileei babesteko

Gipuzkoako 40 bat garbitzaileko ordezkaritza bat Bilbora joan zen Guggenheim museoko garbitzaileei babesa adierazteko.

Garbikuntza feminizatutako sektorea da, eta soldata arrakala sufritzen duen arloa. Horren adibidea da Guggenheim bera: garbitzaileen arteko bi azpisektore alderatuz gero, bata, gizonezko gehien biltzen dituen kale garbitzaileena, eta, bestea, erabat feminizatutako eraikinetako garbitzaileena, garbi ikusten da urteko soldatan 8.000 bat euroko aldea dagoela –erreferentzia bakartzat hartuz



gero oinarritzko soldatak, hots, plusak alde batera utzita—. Bizkaiko garbitasunean arrakala %50ekoa da. Gipuzkoan, antzekoa. Horregatik, elkarrekin egin nahi izan zuten ekitaldia, arrakala horri aurre egin behar zaiola aldarrikatzeko.

Abenduaren 13tik 17ra, Bizkaiko autoeskoletako greba txanda berria



ELAk beste bost greba-egun deitu ditu Bizkaiko autoeskoletan abenduaren 13, 14, 15, 16 eta 17rako, sindikatuaren azken hitzarmen-proposamenari patronalak erantzunik eman ez diolako. Era berean, ELAk negoziazio mahaiaren bilera deitu du abenduaren 9rako LHKren egoitzan eta gatazka bideratzeko proposamen berri batekin joateko eskatu dio patronalari.

Bizkaiko autoeskolek 11 urte daramatzate hitzarmena berritu gabe. Soldatak, ordutegiak eta gainerako lan-baldintzak oso prekarioak dira, eta, kasu askotan, irregularrak. Gainera, genero-arrakala handia dago administrazio-postu feminizatuenetan.

APAVik negoziatzeko borondaterik ez zuenez izan, ekainetik azarora, langileek 19 greba egun egin dituzte sektoreko lan-baldintzak erregularizatu, duindu eta hobetuko dituen hitzarmen baten alde. Hala ere, patronalak oraindik ez die erantzun langileen eskaerei.

El oligopolio eléctrico, culpable de la subida de la luz

ELA ha tomado parte activa en las manifestaciones convocadas por Asociaciones de Vecinos, Ekologistas Martxan y otros movimientos sociales para denunciar la imparable subida de la luz y otras fuentes de energía como el butano o el gas y sus terribles efectos sobre las personas más vulnerables económicamente.



Las plantillas de Novaltia y Vulcanizados Zuloaga, en lucha por su convenio

El Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha dado la razón a ELA y condenado a Novaltia, empresa distribuidora de productos farmacéuticos situada en Zamudio, por sustituir a los trabajadores en huelga por personal de Empresas de Trabajo Temporal (ETT). La plantilla de Novaltia está en huelga indefinida desde el 23 de julio de 2019 para mejorar sus condiciones de trabajo. La dirección de la empresa, con sede central en Zaragoza, se ha negado constantemente a negociar con el comité de huelga un convenio que ponga fin a la precariedad que sufren los y las trabajadoras.

Otros que están protagonizando una larga pelea en defensa de un convenio propio son los trabajadores de la empresa Vulcanizados Zuloaga, de Zaratamo.



A estos, como a los de Novaltia, se les aplica un convenio estatal, el de Químicas, sinónimo de precariedad.

Gipuzkoako erraustegiko langileek greban osasun eta lan baldintzak duintzeko

Azaroaren 23tik aurrera, Zubietan dagoen Gipuzkoako erraustegiko plantillako langileek greba mugagabea egingo dute, lantokian pairatzen duten prekariedade ezabatzeko. Enpresak hasieratik ez ditu bermatu osasun eta lan baldintzak. Ekobal Operación y Mantenimiento azpikontratak kudeatzen du enpresa.

ELA sindikatuak salatzen du Eusko Jaurlaritzak ezarritako zerbitzu minimoek urratu egiten dutela langileen greba eskubidea. Izan ere, ekoizpen arloan %70eko zerbitzu minimoak ezarri dira, eta balorizazio plantan, berriz, %90ekoak.

ELA denuncia la desprotección de las víctimas de la exposición a amianto en Navarra

ELA ha denunciado la desprotección de las víctimas de la exposición a amianto y exige al Gobierno de Navarra que en lugar de despilfarrar dinero en el diálogo social lo destine al desamiantado. Así mismo, el sindicato insta a las empresas responsables a no dilatar los procedimientos judiciales en curso, y reclama al Gobierno Foral la implantación de medidas de compensación en favor de las víctimas y sus familiares.

Durante los últimos años, ELA ha iniciado una serie de procedimientos administrativos y judiciales para proceder al reconocimiento de las enfermedades profesionales relacionadas con la exposición laboral a amianto de varios ex-trabajadores de las empresas Fagor Ederlan (Tafalla) y Sunsundegui (Altsasu), y posibilitar así la tramitación de las correspondientes prestaciones,

recargos, e indemnizaciones por responsabilidad civil en favor de dichas personas y sus familiares.

ELA alerta de que las enfermedades relacionadas con el amianto son, también en Nafarroa, un fenómeno de dimensiones pandémicas, consecuencia directa de la irresponsabilidad de las empresas y del insuficiente control público producido durante la segunda mitad del pasado siglo veinte. Dado que el período de latencia de este tipo de patologías, varias de ellas cancerígenas, puede llegar a ser de hasta 50 años, se trata de una problemática de salud pública y laboral interesadamente invisibilizada y que ELA va a sacar a la luz.

**AMIANTOAK
HIL EGITEN
GAITU!**

amianto
Problema social

**Erantzukizunak
argitu**



Gure Zirkua, euskararen malabaristak

Testua eta argazkiak: NAGORE URIARTE / GORKA QUEVEDO

Zirkua munduko ikuskizun zaharrenetakoa da. Hasieran Txina zaharrean izan zen. Ondoren, Grezian eta Erroman ere. Haiek, erromatarrek, jarri zioten “zirku” izena. Ipar eta hego, eki eta mende, altxor hau belaunaldiz belaunaldi zabaltzen joan zen, Euskal Herrira heldu zen arte. Orain, Iker Galartza eta Gure Zirkua osatzen duten gainontzeko lagunei esker, gurean ere fantasiari ateak zabaltzeko aukera bikaina dugu. Gure Zirkuan ezinezkoa den guztia egi bihurtu daitekeen mundu magiko batera bidaiatu ahalko dugu. Eta euskaraz.

Beasainen (Gipuzkoa) egin dugu hitzordua Gure Zirkuko lagunekin. Hitzartutako ordua baina lehenago heldu gara, eta Joseba Usabiaga Amondarainek (Tolosa, 1981) ireki dizkigu zirkuko ateak. Karpara sartu, argiak piztu eta lehen momentutik etxean bezala sentiarazi gaitu. Joseba 'Don Martin' da Gure Zirkuan, ikusleei anfitrioi lanak egiten dizkion aurkezlea. Guri ere hala egin digu. "Zuek lasai ibili, ni hemendik egongo naiz edozertarako", esan digu, eta bere zereginetara joan da. Handik gutxira Ekain Iburguren Arruti (Azpeitia, 1996) agertu da. Ekain pailazo lanak egiteaz gain malabarista lanetan ere aritzen da. "Beti izan naiz pailazo xamar, beraz, alde horretatik ondo", dio umorez. "Eta malabarista izatea, tira, orduak sartzea da. Futbolariak bezala. Haiek zer egiten dute? Entrenatu, entrenatu, entrenatu eta igandeetan partidua jokatu. Gu igual. Entrenatu, entrenatu, entrenatu eta saioa dugunean ba atera eta ahalik eta hoberen egin".

Ekainekin hizketan ari garela Iker Galartza (Amezketza, 1977) agertu da. Bera da lehen euskarazko zirku ibiltariaren ideia sortzailea, proiektu honen arima. Asteartea da, eta hurrengo saioa ostiralean dute. Hala ere, zirkuan beti dago egiteko zerbait. "Goizetan ikastetxeren bat etorri ohi da, gure trapezioak erakusten dizkiegu umeei, soka gora nola egin... Eta badaude beti konpondu beharreko arazoak: hesia apurtu dela, bi foku funditu direla... Jende gutxi badago ere, beti saiatzen gara zirkua hutsik ez egoten. Musika jartzen dugu, bafleak kanpora ateratzen ditugu... Zirkuak bizirik iraun behar du. Zirkuaz goza daiteke, bertan lasai egonda ere".

Abenturaren hasiera

2017ko irailean egin zuen lehen emanaldia Gure Zirkuak, Tolosan. Hortik aurrera Euskal Herriko makina bat herritan egon dira, arrakasta handiz.

"Estamos aquí mucho tiempo, juntos, son horas y horas. Además de compañeros y compañeras de trabajo somos amigos y amigas. También intentamos cuidarnos mutuamente, y eso es muy bonito. Nuestro resultado es también reflejo de ello".



Gure Zirkua -‘Nuestro Circo’- es el primer circo itinerante en euskera. El proyecto nació en 2017, cuando Iker Galartza -Poxpolo, en Gure Zirkua-, compró una carpa de circo. Desde entonces más de 100.000 personas han podido disfrutar in situ de la magia del único circo en euskera.

Milaka eta milaka izan dira urte guzti hauetan zehar bertatik pasa diren ikusleak. Proiektu hau ezagutzeko hitzordua egin dugu Ikerrekin. Gure Zirkua nola sortu zen aipatu digu.

“Kalean urte asko generamatzan, 17 urterekin hasi ginen festaz festa, herriz herri, eskoletan ikasturte amaierako jaietan... Poxpolo, Mokolo eta konpainia ginen gara hartan. 2009n Mokolo isuri batek jota hil zen. Aurrera segitzeko beharra sentitu genuen eta halaxe egin genuen: frontoiz frontoi, herriz herri, plazaz plaza jarraitu genuen, lehengo leku beretan ari ginen, gauza bera egiten, baina gure laguna gabe. Zirkua ere ametsa ere bueltaka zebilen gure artean, egunen batean karpa bat jarriko ote genuen amesten. Zirkua asko gustatzen zitzaigun eta edozein ikuskizun aprobatzen genuen zertzeladak sartzeko: antzoki batean baginen trapezioa zintzilikatzen genuen...”

“Orain Gure Zirkuan dabilen jendea, Maider, Ane Miren... orduan ezagutu genuen. Ekain ere, mutil koxkorra zela, 17 urterekin malabareak egiten zituela. Behin pailazo batek esan zidan: jubilatzen zarenean erosi karpa txiki bat Euskal Herrian barna ibiltzeko... Jubilatu arte itxaron? Esan nion neure buruari, indarra orain daukagu eta! Momentu egokia zen dena erabat aldatzeko, erabat berria izan zitekeen zerbait abian jartzeko, beti ere, kontuan hartuta munduko espektakulurik zaharrenetako bati buruz ari garela. Baina geuk gurera ekarri nahi genuen, geure egin. Ekaini zirkua gustatzen zitzaion, beraz, gauzak konpartitzen hasi ginen. Ni neu beste zirku batzuetan lanean hasi nintzen ikasteko. Nola muntatzen zen makineta bat, sekula maneiatu gabeko karro horietako bat... Gu hori egiteko gai izango al gaituk? Esaten genion geure buruari. Eta halaxe egin genuen, ‘a la aventura’ esan ohi dena”.

Aurrera eta aurrera!

Tolosako lehen saio horren ostean, hurrengo urtean Gure Zirkua herriz herriko bira hasi zuen. Bi urtez han eta hemen ibili zen zirku ibiltaria, haur eta helduen gozamenerako. Ekimena sona eta indarra hartzen ari



Ekain Ibarguren Arruti, clown eta malabarista.

zen, baina 2020ko martxoan ametsak etenaldi bat izan zuen. Covid-19ak eragindako mundu mailako pandemia gurera ere heldu zen, eta denbora luzez denok etxean sartuta egon behar izan genuen. Bat-batean, ezin zen ezer egin.

“Momentu horretan telebistako saio batean ere lanean hasi nintzen (ETB1eko Etxekoak-Joseba Usabiagarekin elkarlanean, besteak beste). Gogoan dut elkarri esaten geniola: eta orain, zer? Hilabete batzuen buruan argia ikusten hasi ginen, orduka eta txandaka behintzat kalera ateratzen... Ikuskizun kulturalak berriz martxan jarriko zituztela esan zuten,



*Iker Galartza.*

El circo es una especialidad que va creciendo. Cada vez son más las escuelas y talleres de circo que hay, y la cantidad de niños y niñas que se apunta crece cada año. Este trabajo se refleja en la gran calidad de los clowns, artistas, malabaristas, acróbatas o contorsionistas que hay en Euskal Herria.

edukiera erdia eta distantziak mantenduz bazen ere. Orduan pentsatu genuen: egin, egin daiteke, ezta? Ba egin dezagun!”.

“Geure karpa txikiarekin, edukiera dela eta, ezin genuen egin. Denok argi geneukan karpa txikiaren aforo erdira egin izan bagenu denon soldatak erdira jaitsi beharko genituzkeela. Horretan ez geneukan zalantzarik, taldeari eustea zen lehentasuna. Halere, European zirku pila bat itxita zeudela konturatu ginen eta alokatzea planteatu genuen. Portugaleko bati alokatu genion, arriskatu ginen. 800 lagunentzako karpa bat ekarri genuen. Herriz herri karpa horrekin joatea ezinezkoa zenez, hiru kokaleku hautatu genituen eta halaxe ibili ginen: bi hilabete horretan, hilabete eta erdi bestean... Eta salbatu genuen. Aurrera eta aurrera”.

Umorea, inoiz baina garrantzitsuagoa

Asko izan dira pandemiak utzi dizkigun ondorioak, horietako asko osasun mentalekin lotutakoak. Estresak eta depresio kasuek gora egin dute, baita antsiolitikoek beharrak ere. Umorea beti izan da behar beharrezkoa, munduan dagoen botikarik onena da. Horrelako egoera latzetan jendeak ondo pasatzeko behar handiagoa ote duen galdetu genion Ikerri.

“Dudarik gabe eta, batez ere, iaz. Orain jendeak barre egiteko gogoia dauka, baina iaz zerbait sentitzeko beharra zegoen. Sentsibilitate handiko ikuskizun batzuk atera zitzaizkigun. Gauza asko atera ziren, beharbada beste momentu batean aterako ez zirenak. Jendea malkotan sumatu genuen. 40 emanaldi egin eta 40.enean ere jendeak hunkitzen segitzen zuen, sentitzeko behar handia zegoen. Ateratzean jendeak esaten zigun: ‘terapia hutsa izan da! Honek derrigorrezkoa izan beharko luke! Mundu guztiak eman dezala buelta bat hemendik!’ Jendeak bazekien esfortzu handia egiten ari ginela, egoera zaila zela. Aurten esketxek beste freskura bat izan dute, oso pozik gaude eta asko disfrutatzen ari gara”.

“Umorea bada, baina goxotasuna ere bada, gertutasuna, egiten ari zarena zeure sentitzeko modua, gertukoa egitea. Guretzat hori oso garrantzitsua da. Gogoan dut artikulu batean kazetari batek oinak lurrean genituela idatzi zuela. Joseba, adibidez, orain dela bi urte Goya saria hartzen egon zen Madrilén, alfonbra gorrian. Orain berton dago, gure zirkuan, gurekin, ilusio berarekin lanean. Nik horrelako jendea nahi dut inguruan, oinak lurrean dituen”.

Ikuskizun aparta da Gure Zirkua. Mimo eta maitasun handiz eginda dago. Magiaz eta ilusioz beteriko bidaia baterako atea da. Baina lan handia dago horrelako ikuskizun eder bat aurrera atera ahal izateko. Familia moduko bat osatzen dutela dio Iker Galartzak. “Denbora luzez gaude hemen, elkarrekin, orduak eta orduak dira. Lankideak lagun ditut. Elkar zaintzen ere saiatzen gara eta hori oso polita da. Gure emaitza horren isla ere bada. Langile solteak izango bagina, ordu eta erdi lehenago emanaldirako bakarrik joango bagina eta bukatzean ospa egingo bagenu, bestelakoa izango zen emaitza. Hemen, ordea, gauza asko konpartitzen dira, egunerokoan elkarrekin gaude”.

Gorantz doan zaletasuna

Gure Zirkua emanaldi bat bertatik bertara ikusi besterik ez dago Euskal Herrian zirkuak osasun ona duela jabetzeko. Hori da Gure Zirkuak etorkizunari begira utziko duen beste ondareetako bat: afizioa sortu du. “Zirkua goraka doa. Goraka doa. Jendea emanaldiaren kalitate handiarekin harrituta geratzen da. Nik beti diot euskaldunak izateagatik ez gaituztela barkatuko! Beste kiroletan garaipenak ditugun bezala, zirku ona ere egin genezake. Artista helduak ditugu, ia gehienak 40 urtekoak dira. Bat Edinburgon urte luzez egondakoa, bestea Londresen lanean, beste bat Los Angeleseko El Circo del Solen, bestea Bartzelonan... Eta orain zirkua egiteko aukera daukate beraien herrian, eta disfrutatuz. Euskal Herrian lau zirku eskola daude, umeentzako tailerrak egiten dira eta



El mejor circo del mundo es en euskera

Si entras en cualquier buscador de internet y pones a ver cuál es el mejor circo del mundo encontrarás una amplia lista de opciones: el Antiguo Circo de Moscú (Rusia), el Circo Plume (Francia), el Circo de Changdu (China), el Cirkus Cirkor (Québec), Big Apple Circus (Estados Unidos de América), el Cirque Du Soleil (Québec), Fuerza bruta (Argentina)... Tal vez sea porque es relativamente nuevo (2017) o porque es en una lengua minoritaria (euskera), pero el mejor circo del mundo no aparece en ese ranking.

Hablamos de Gure Zirkua, 'Nuestro Circo', un proyecto impulsado por Iker Galartza y que pretende llevar la magia del circo a todos los rincones de Euskal Herria.

Es el mejor circo del mundo porque en ningún otro hay un presentador tan simpático como Don Martín (Joseba Usabiaga), ni un payaso tan encantador como Poxpolo (Iker Galartza), ni magos como Asier Kidam, ni malabaristas como Ekain Ibarguren, ni acróbatas como Ortzi Acosta o Agurtzane Telleria, ni contorsionistas como Ane Miren, ni trapecistas como Iraitz



Lizarraga, ni músicos como Ibon Mendibil o Unai Zabaleta...

Pasión

Cuenta Iker Galartza que una de las claves del éxito de Gure Zirkua es que la gente ha hecho suyo este proyecto, que lo vive con pasión. "Nos pasa como en el fútbol, que si tu equipo gana te pones muy contento, pero que si pierde o no salen las cosas como querías te enfadas". Ser de un equipo de fútbol, generalmente, es un sentimiento que se hereda de generación en generación. Luego, cada persona, según su lugar de nacimiento, herencia

o contexto que le ha tocado vivir, será de un equipo u otro, pero para él o ella ese equipo, sea cual sea, siempre será el mejor.

Por eso, para quienes viven en Euskal Herria y les guste la magia del circo, Gure Zirkua siempre será el mejor circo del mundo. Y no solo porque es en euskera, que también, sino porque de verdad lo es. Y quien lo quiera comprobar lo puede hacer in situ. Por ejemplo, **del 17 de diciembre del 2021 al 4 de enero del 2022 en su próximo destino, Tolosa.** 

Zorte izugarria da Euskal Herrian munduko zirkurik onenaz goatzeko aukera izatea. Eta euskaraz!

denak topera dabilta. Hori orain dela bost urte pentsaezina zen, baina Gure Zirkua hori ere ekarri du: afizioa”.

“Tradizioz izar izan diren kiroletan zaletasuna ez dutenentzat bada alternatibarik, kirola eginez zeure fisikoarekiko konfiantza landuz... Lehen futboleko txarra bazinen, pianora! Beste gauza asko egin daitezke. Gaur goizean ume asko etorri dira eskolarekin eta oso fin aritu dira, irribarre handia ahoan, ‘ea hau nirea den’ pentsatzen...”.

Eta hau guztia... euskaraz. I

Gure Zirkua ezin da ulertu gure hizkuntzarik gabe. “Horrek gertukoa izatea egiten du. Erantzukizun puntu bat ematen du ere batzuetan, mailari eutsi

behar diogulako. Azken finean, jendeak Gure Zirkua berea bezala hartzen du, futbol taldeekin gertatzen den bezala”.

Beasaindik Tolosara joango da Gure Zirkua abenduan. Bertan agurtuko dute 2021. urtea, eta bertan emango diote ongi etorria 2022. urteari. Neguaren ostean berriz ere herriz herri ibiliko dira Iker, Joseba, Ekain, Ane Miren, Hortzi, Maddi, Asier eta munduko zirkurik onena posible egiten duten gainontzeko lagun guztiak: artista, soinu eta argi teknikari, musikari, muntatzaile... Zorte izugarria da Euskal Herrian munduko zirkurik onenaz goatzeko aukera izatea. Eta euskaraz. **A**

“El circo es una manera de hacer deporte mientras ganas confianza en tu cuerpo. Cuando estamos en un pueblo y nos visitan de las diferentes escuelas pretendemos demostrar a los niños y niñas que el circo es otra alternativa de hacer cosas divertidas trabajando también el físico”, destaca Galarza.



Argazkia: Gure Zirkua.

“Pailazoa izatea jarrera bat da bizitzan, aurpegia pintatuta ez baduzu ere”

Iker Galarza, Poxpolo, Gure Zirkua proiektuaren sortzailea

G.Q. / N. U.

Iñaki Odriozola lagunarekin, Mokolo, egin zen ezagun Iker Galartza, Poxpolo. Biek Poxpolo, Mokolo eta Konpainia taldea osatu zuten Tolosa eta inguruko beste hainbat lagunekin. Iñaki 2009an hil zen, isuri baten ondorioz, baina Ikerrek eta bere lagunak aurrera jarraitu zuten, 2016ko urtarrilean agur esan zuten arte. Baina Iker Galartzak beste lan asko ere egin ditu. Besteak beste aktore lanak egin ditu antzerki eta telebista saio ezberdinetan, eta gidoilari ere izan da. Orain bere bizitzako ametsa betetzen ari da Gure Zirkuan. Pozik dago bertan, eta igartzen zaio.

»Nolakoa da Iker Galartza fokuetatik kanpo?

Ba denak bezala. Familian bazkaldu eta gero sofán etzan eta 10 minutu egon orde z ordu erdi gustora egongo zen bat. Oso normala naiz. Nire afizioak gutxi disfrutatzen ditut: zinea, antzerkia... Zirkuan ez nagoenean ere, hiru ume ditut eta denbora dedikatu behar diet. Edozein gurasori gertatuko zaion bezala, batzuetan pentsatzen dut ea noiz



haziko diren autonomoagoak izateko eta nik denbora libre gehiago izateko; baina gero iluntzean pentsatzen dut: ze txorakeri pentsatzen ari nintzen, hauek sagu txikiak bezala besoetan ditut eta hala izan nahi ditut.

Aitortu beharra daukat lanbide honek neke handia dakarrela, ez duzu deskonektatzen, honetarako bizi zara, burua beti duzu horretan. Beste lan asko

badaezpada hartzen dituzu, telebistan kasu. Badaezpada, badaezpada... Badaezpadakoak ere hartzea tokatzen zait, baina bestela zirkuarekin zorionsua izango nintzateke.

»Lan asko egin dituzu, zirkuarena amets bat betetzea izan al da?

Ni hemen pozik ibiltzen naiz. Gaur non afalduko dugu, kamioian, ala bagoaz bokata bat hartzera

“Terminar una función y ver la cara de alegría de la gente lo es todo. Cuando terminamos una función siempre salimos fuera de la carpa a agradecer a la gente. Y ver que salen felices es lo máximo. No hay trabajo que te dé esa satisfacción. En la televisión o en el cine puedes hacer buenos trabajos y la gente que está en sus casas disfrutará, pero esto es otra cosa, es muy real”.



herrira? Gero bagoaz beste herri batera, baina beti ilusioz. Bertaratu eta terrenoa neurtu karpa sartuko den jakiteko...

»Lan honek fruituak ematen dituela ikusten duzunean... zer da hori zuretzat?

Dena da hori. Saio bat amaitzen dugun bakoitzean beti esaten dut: goazen denok kanpora jendeari eskertzera. Kanpora atera eta jendearen aurpegi alaiak ikustea... hori dena da. Ez dago hori emango dizun lanik. Telebistan edo zinean oso lan onak egin ditzakezu eta etxean dagoenak gozatuko du, baina hau beste gauza bat da, oso erreala da.

»Pailazoa zara, baina pailazoaren atzean pertsona dago. Batzuetan jendeak ez ditu bata eta bestea bereizten... Zer da pailazoa izatea?

Pailazoa izatea jarrera bat da bizitzan, aurpegia pintatuta ez baduzu ere. Gauzak erlatibizatzen laguntzen dizu, zeure buruari rol hori ematen dio. Xumea eta polita den zerbait are zoragarriagoa ikusten laguntzen dizu. Jarrera positibo bat da, tristurarekin, bere egun on eta txarrekin, baina jarrera baikor bat da. Jendeak kaletik pailazoa bakarrik ikustea normala da, ez da ezer gertatzen, jendearekin

hitz egin eta barre egiten duzu eta kito. Jende askok eskertzen dizu zurekin barre egiten duelako.

»Zer dauka Poxpolok eta zer Ikerrek?

Poxpolo Ikerretik jaio zen eta Poxpolo Iker hazi den heinean hazi da. Poxpolok orain dela 20 urte esan zituenak entzutean neure buruaz pixka bat lotsatzen naiz, baina hemendik 20 urtera ere egun esaten ditudanez gertatuko zait. Poxpolo, izenak dioen bezala, pospolo baten modukoa da, segituan pizten da, argia da, edozeri punta aterako diona, behin ere isilduko ez dena. Poxpolori mugan aritzea gustatzen zaio, ondo dagoena eta gaizki dagoena zalantzan jartzea. Jendeari pika-pika ere egin behar zaio, ez naiz beti atsegina eta polita izango.

Ikerrek, ordea, gauza asko ezin ditu esan, batzuetan isildu beharra dauka. Peluka berdearekin eta sudur gorriarekin maitasun/gorroto harremana daukat. Umeek maite dute, beraz, jantzen ditut. Bere garaian jantzi nuen, pare bat argazki atera eta orain ezin horiek gabe atera. Inoiz pelukarik gabe atera naiz, baina segituan esaten didate jantzeko. 



Carme Forcadell, presidenta del Parlament de Catalunya encarcelada en 2018

“De la cárcel he salido igual de republicana e independentista, pero más feminista”

Texto: SAIOA BALEZTENA

Fotos: DANI CODINA

Publicado en la revista ARGIA y traducido para ALDA por la propia autora

Mientras presidía la Asamblea Nacional Catalana (ANC) de 2012 a 2015, junto con Òmnium Cultural, Carme Forcadell impulsó las movilizaciones sociales más numerosas de las últimas décadas en Catalunya. En octubre de 2015 la nombraron presidenta del Parlament de Catalunya, y en marzo de 2018 la encarcelaron. Después de más de tres años quedó libre en junio pasado, cuando el Gobierno español tramitó los indultos.

» Antes de nada, ¿cómo se encuentra?

Estoy bien. Siempre digo que estoy volviendo a vivir. Disfruto de

las pequeñas cosas, de pasar tiempo con la familia, pero por la noche todavía me cuesta dormir, me despierto a menudo.

Salir de la prisión me hizo feliz, pero la felicidad no puede ser completa: continúa habiendo miles de personas represaliadas, entre ellas, la compañera Marta Rovira, el presidente Puigdemont, Toni Comín, Clara Ponsatí, Anna Gabriel y Lluís Puig. Solo una amnistía pondrá fin a toda esta represión.

» ¿Cómo vivió el primer día en prisión?

Cuando entré en prisión estaba en shock, y después sentí mucha rabia y tristeza. Tenía claro que no quería ser una reja dócil y abstraída en mí misma. Quise mirar a las mujeres que convivían conmigo e interesarme por ellas, y aprendí a valorar las pequeñas cosas.

Siempre digo que de la cárcel he salido igual de republicana, igual



“Orain errepresioa bukatu eta gatazka konpontzeko erabaki politiko gehiago behar dira, amnistia legea eta autodeterminazio erreferenduma”.

“Ez nuen espero eztabaida bat legebiltzarrean onartzeagatik hamaika urte eta erdiko kartzela zigorra jasoko nuenik”.

de independentista, pero más feminista.

